

EL DESAFIO DEL DESARROLLO HUMANO. PROPUESTAS LOCALES PARA OTRA
GLOBALIZACIÓN.

BILBAO 8-10 febrero 2007.

ETXEKO+FAMILIKO LANEN GLOBALIZAZIOA.

Olatz Muñoz Arrieta.
Soziologa. Iruña. Nafarroa.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
Soziologia Saila.
Olatz.munoz@unavarra.es

AURKIBIDEA:

Sarrera
Lanei buruz
Etxeko-familiko lanei buruz
Etxeko – familiko lanen balorazioa.
Etxeko – familiko andrea.
Etxeko – familiko langilea.
Eguneroko bizitzaren soziologia.
Langabezia eta azpi-ekonomia.
Lan merkatutik lan merkatuetara.
Denbora ertaineko lana eta bazterketa laborala.
Lanaren banaketa.
Denboraren banaketa.
Kontziliazioa.
Kontziliaziotik bizikidetzara.

SARRERA.

Idatzi honen abiapuntuak bat baino gehiago dira. Lanaren banaketa (bere zentzu zabalean) eraberritu daitekeela, behar dela, hori da ideia. Pertsona edo hiritarrei zuzentzen zaizkien zerbitzuen hobekuntza eta zabalkuntza begi-bistan ditu, oinarrian.

Aukera eta errekursoak lortzeko taldeek dituzten desberdintasunak gaur eguneko gizartean ezinbesteko arazotzat du.

Azken hamarkadan (ez bakarrik, baino bai modu berezi batean), Administrazio eta erakundeen kudeaketa arloetan, famili dinamika eta gizarte dinamikaren artean dagoen artikulazio eskasa agerian jarri da. Agenda politikoa deritzon horretan, arlo pribatua eta arlo publikoen desorekak asko eta diferenteak zirela onartu eta, horren ardura gizarte zibila osoari zegokiola oso zabaldu zen ideiak dira. Aurretik ere egon arren, arazo orokor baten maila hartzen duela esan genezake¹

Beste arlo batean, gizonezko eta emakumezkoen denbora erabiltzeari buruzko inkesta eta ikerketak berdintasun eza agerian jarri dute, eguneroko bizitzaren une askotan.²

Horren atzean oinarrizko beharrak antolatu ezina eta zainketa aurrera emateko zailtasunak daude. Kontziliazio beharra, artikulazioa, bate-etortzea edo eremu pribatua publikora gerturatzearen izenean ideien eta errekursoen zabaltze eta zehazte beharra azpimarratzen da.

Etxekolanak gaitegi horren erdigunean jartzen ditugu. Eta bere inguruan, ekonomian zein beste zientziek landutako teoria eta ikuspegi batzuk agertzea ezinbesteko izango da gure eszenatokia ongi osatzeko.

Guk esparru pribatu zein publikoa begiratzen ditugu. Bai, baina hasieratik ez dezagun ahanzi prestigio maila oso desberdina dutela esparru biek. Publikoarekin lotutako jarduerak eta espazioak gehiago baloratzen ditugu pribatuarekin lotutakoak baino. Publikoak zabaltasuna adierazten du, uneoro aldaketak jasotzen ditu, gizarte terminoaren baliokide litzateke hein handi batean. Pribatua aldiz, etxe eta famili eremuari lotuta aurkitzen dugu. Etxeko andrea, azken mendeko irudi ezagunak, etxekolanen espezialista izandakoak pribatu espazioa bere egiten du. Bere, hau da, emakumezko batzuen. Nahiz eta batzuetan Emakume perfil orokorraren sinbolo ere bilakatzen den.

1 Autore batzuen artean (2003) "Foro de Municipios por la Conciliación". Granadako Kongresua; Zizur Nagusiko Udala (2006) "Genero Berdintasunerako Plana" Erakundearen lankidetzari buruzko atala

2 BOOT, Elizabeth (1990) "Familia y red social". Taurus Arg; MENDEZ, Lourdes (1991) "Reflexiones sobre la poco común producción de las pequeñas mujeres" Antropología de las pueblos de España bilduman; SETIEN, M^a Luisa (1993) "Indicadores sociales y calidad de vida: un sistema de medición aplicado al País Vasco. Monografiak Bilduma, CIS Erakunde"; TOBBIO, Constanza (1995) "Movilidad y género en el espacio urbano" Espacio y género: ¿un uso diferencial? Liburuan. Madrilgo Komunitateko Emakumearen Zuzendaritza Nagusiak Argit.

Prentsa, iritzi feminista, aldarrikapenak, kongresu eta hitzaldien izenburu moduan, lana, familiako lana, enpleguaz hitzegitean...maiz agertzen da emakumezkoek lan-merkatuarekin duten erlazio "berezia".

Itxurazko eta aspalditik datozkigun lan zatiketak antolakuntza sozio-ekonomiko batzuetako indarra dute. Baina horrek berak ere, aukera ematen digu denbora eta espazio konkretu hauetan, sortu dituen justizi eza eta desberdintasun demasak agerian jartzeko.

LANEI BURUZ

Lana, banaketa arazotsua duen hori, kokatu dezagun, lehenik eta behin³.

Gizakiek pertsonalki eta talde mailan ongi bizitzeko burutzen duten hainbat jarduera litzateke lana. Etxetik kanpo egiten direlarik, merkatuan, soldata edo ordainketa baten truke, publikoan burutzen (enplegu egituraren barnean daudelarik asko, baino ez denak) Famili taldeetan edo harreman pertsonalen esparruan egiten den gizalana, pribatua.

Lan bi hauek eta beste guztiak, aisialdiarena barne, Lan Zama Orokorra osatuko luteke. Ekonomia, antropologia edo soziologian Produkzio+erreprodukzio ikuspegia izenez ezagutzen dena aurkitzen dugu, hor autore, ikerlari talde garrantzitsu bat dagoelarik.⁴

Emakumeen egoerak, zenbat dira gaur egun? Polarizazioa aurkitzen da. Mutur batean eta beste oso diferentean dauden emakumezko egoerak. Honen inguruan, emakumezkoen globalizazio bereizi bat ba dagoela adierazi dezakegu. Erreprodukzioa nola antolatzen den ikustean, globalizazio horretara hurbilduz goaz.

ETXEKO-FAMILIKO LANEI BURUZ.

Hortaz, ekintza edo jarduera bat baloratua izateak lehen mailako garrantzia duela onartzen dugu. Eta aldi berean, balorapen hori sozialki ematen dela argi jartzen da⁵. Ez da, inola ere, norbanakoaren esku dagoen gaia. Nire gustukoa den, gaitasun onez egiten dudana, egunero sei edo zazpi aldiz edo orduz horretan jarduten naizen...ez da hori. Beste zerbait litzateke

3 ALEMANI, CARRASCO, BORDERIAS, Koordinatzaileak (1994): " Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales" Icaria argitaratua.

4 POLANYI, Karl (1980) " La gran transformación" La Piqueta argitaratua.

5 ALALUF, Mateo (1991): "La cualificación. ¿De qué se está hablando? " en Formación Profesional 2 zenbakian.; ALANBART, ARAGAY, OVEJERO Y CARRASCO (1991): " El trabajo doméstico y la reproducción social"; ALONSO, L.E. (1999), *Trabajo y ciudadanía. Estudios sobre la crisis de la sociedad salarial*, Trotta, Madrid; (1997), "Sindicalismo y ciudadanía: los dilemas de la solidaridad en la era de la fragmentación", ¿Qué crisis? Retos y transformaciones de la sociedad del trabajo, *Hainbaten artean*. Tercera Prensa Argit. Donostia.

balioa izatea. Eta ez da ere bere balio ekonomiko hutsalean amaitzen. Konposizio baten ondorioa litzateke beraz Jardueren Balorapen Sozial delakoa. Errekonozimendu eta prestigioa legoke jokoan. Azken hamarkadetan zabaldu dira, batez ere, etxeko-familiako lanetaz sistematiko eta modu erlazionalean aritu diren ikerlan eta hausnarketak.⁶

Hauen artean, dena den, onarpen handia jaso duten ideiak ba direla onartu behar da. "Etxekolanen" gaia lantzen edo aipatzen den orduan, ezinbestekoa izan ohi da, beste ideien artean, honako bi ardatz hauek kontuan hartzea: baloratu beharreko giza- langintza bat da, gizartearen funtzionamendurako funtsezko eta oinarritzko lana dela.

Gaur egunean bizi baldintzen esparruan hainbat erkidegotan burutu den eta ari den ikerketa taldeak daude. Hauen bidez agerian jarri zaizkigu ezberdintasun soziala egituratzen deneko espresio mota berriak. Aipaturiko ikerketa hauetariko batetik, ideia interesgarri hau eskura daiteke:

"Emakumezko taldeak bere ekintza esparrua zabaltzeko gogoaz nahiko agiri eta idatzi dugula esaterik badago. Gizonezkoak, aldiz, talde mailan bederen beren ekintza arloa zabaltzeko gogo makalak adierazten dute. Egoera honek, praktikan, emakumezkoen gaiek, hau da bizitzen ingurukoek, gutxiesten ari direla azaltzen du, teknika, administrazioa, eta industri gaien balioa garrantzia hartzen ari den artean. Baina..Noren zerbitzuan? ihardesten dugu guk.

... gizonezko batentzat emakumezko lanetan aritzea erakargarri egin dezakeena ez da lan honek biltzen dituen ekintzak berriz baloratuak izatea baino. Eta gure gizartean, balioaren iturria edozer gauzak posizio sozial bati eransten dion dirua, prestigioa, boterea eta ezaguera-mailaren batuketa da, batez ere".⁷

ETXEKOLANEN DEFINIZIOA

"Etxekolan" termino ohia erabiliko badugu ere, Etxea eta Familiaren lanen Sistema kontzeptuaren ingurunean murgiltzen gara.⁸ Sistema diogunean bat-batekotasunetik kanpo, egituratu eta deskonposatze prozesurik baduela ziurtatu nahi dugu, bai eta gizarteko beste sistemekin harremanean dagoela adierazi. Ondasun, Zerbitzu eta lanpostuen

6 VARIAS AUTORAS (1988) "El trabajo a traves de la mujer" ,Sociologia del Trabajo, 3 zenbakian.VARIAS (1991): "Mujer y trabajo" en Rev. de Economía y Sociología del Trabajo, N°s 13-14.

7 (1993) "Interdependencia de las actividades domésticas y el trabajo doméstico. Estudio comparativo de hombres y mujeres" Docum. del Parlament de Catalunya.

8 SARACENO, Chiara:(1995) "Familismo ambivalente y clientelismo categórico en el Estado de bienestar italiano". (1985): " Risorse e limiti del ricorso alla solidarietà" En Democrazia e Diritto, N° 5.

merkatuarekin, Estatuaren erakundeekin, Hezkuntza sistemarekin etengabeko elkarrekintzan aurkitzen dugu. Bestetik, etxea eta familia hitzen elkarketak taldearen hurbiltasuna eta/edo ahaidetasuna adierazten ditu.

Zein lan mota da hau? neurri handi batean etxebizitza batean garatzen dena, non bertan dagoen edo dauden pertsonak euren baliabideak amankomunean jarri eta beren beharrak asetzeko hainbat lan burutzen dituzten. Gehienetan talde horretako emakumezkoek egindako lanak eta hainbatetan etxebizitza barruan burutzen direnak izan ohi dira.

Lan horretan dauden eduki eta jardueren zerrendatzeak ere lagun gaitzake lanketa mota horren zehazpenean. Fernandez Enguitak 1991ean proposamen bat egin zuen langintza jarduera edo kategoria batzuetan antolatuz. Gaur egun, Salamancan Fernandez Enguitak duen ikerketa taldea, zein Bartzelonan QUIT ikerketa erakundeak egiten dituen saioetan, oinarrian, 90 hamarkada hasieran egindako banaketa hau dute. Hobetua eta lekukotasun handiagoarekin, hori bai. 9.

ETXEKO (FAMILIKO) ANDREA.

Hemen eta hurrengo atalean familia-etxe laneko bi perfil agertzeraz goaz. Bertaratu nahi duguna ez da famili egituren azterketa sakon bat. Emakumezko perfil batzuek agertzen dugu helburu. Adierazgarritasunez eta ez zuhurtasunez. Hau da, famili barnean lanean diharduen bi emakumei buruz (neskamea eta etxeandrea) ideiak adierazten ahalegindako gara.

Milioika dira, gaur egun, bere burua erabat (edo batez ere) etxeandrea taldeko partaide ikusten duten emakumeak. 10

Mendebaldeko eta garapen bidean dauden Nazioartea kontutan hartuz, bere kopurua (etxeandrea zeregina modu eksklusiboan garatzen duen emakumezkoena) gutxituz doa aldiro. Honen arrazoia, emakumezko gazteek, gero eta maizago, etxekolonetik beste ekinbiderik lantzeko jarreretan dago.

Ezinbestekoa da, bestetik, familia egituraz dagoen definizioei begiratzea, lanbide hau egitura horretan kokatzen denez gero. Era honetako ideiak ageri zaizkigu:

⁹FDEZ ENGUITA, Mariano (1991): Hamar talde hauetan bereizten diren 40 iharduera desberdin: Etxebizitzaren garbiketa. / Elikadura. / Jantzia. / Etxebizitzaren osaketa, hornidura eta mantenmendua. / Komunikabide eta garraioak. / Baliabideen administrazioa. / Osasunaren zainketa. / Adindu (agure) eta haurren zainketa. / Aisialdiaren kudeaketa. / Bizitokiaren barne eta kanpoarekiko harremanak. "Hágalo Ud. mismo. La Cualificación del trabajo doméstico, la crisis de su aprendizaje y la responsabilidad de la escuela" Ed. M.E.C. Monografía 156. CIDE

10 OAKLEY, ANN (1974-) "THE SOCIOLOGY OF HOUSEWORK" Londresen argitarat.

“familia elkarrekin bizi den pertsona multzo bat da, arrisku eta erabakien esparruan unitate bat bakarria baillitza jokatzen duena”; 11

“gure familia, funtsean, judutar tradizioetik datorkigun eredu besterik ez da. Bikote harremanak eta gizonezko eta emakumezkoen rolen lehen mailako igorlea dugu. Egunero, modu espontaneoan, berrekoiztu eta birsortzen den eredu tamalgarria”. 12

Ikuspegi hauen eraginez etxeoandrea kokatzerakoan familia-buruaren egoera sozio-ekonomikoa zuzenean hartzea da ohiturazkoa. Familiak duen errekurtsoen kantitatea eta kalitatea neurtzean etxeoandreak (partzialki edo denbora osoan) errekurtsu horien kopuru bat eskuratzen duen litzateke, beste bereizgarririk gabe. Hainbat ikerlan taldek bere deseratze prozedurekin lan interesgarria egin du. Hauen bidez, etxeoandre izendapena jasotzen duen bitzita-baldintzen aniztasuna agerian jarri da.

Aldi berean, eta batez ere Italiako soziologiak bultzatutako ikuspegi bat dela medio, etxeoandreen funtzio sozialak jasotzen zuen ohizko tratamendua eraldatua gelditu da erabat. Gure gizartea zerbitzu gizarte balitz ikusten den unetik, emakumezko hauek garatutako lana pertsonen bizimodua ziurtatzen duen zerbitzua baina ez dela jarri da agerian.

Europar eta garatutako estatuetan zerbitzu publikoen zabalpena aldarrikatu eta lortutzat eman da azken hamarkadetan.

Hala onartu beharra dago. Aurreko estatuekin alderatuta, II Guda Mundialetik gero, Estatuak ongizate Estatu bilakatu dira, zenbait giza alorretan partaidetza aktibo bat izanez. Oinarrizko eskubideak ziurtatzea helburu hartuz, herri- administrazio eta zerbitzu publikoen presentzia areagotu egin da. Zerbitzu Publikoen zabalketa eta teknologian emandako aurrerapenak, esparru pribatuan burutzen zen hainbat lan kaleratu, gizarteratu daitekeela pentsarazi dio zenbaiti. Iritzi hauek eredu gizarteratu edo kolektibizatu batean jartzen dute etxeoandreak gaur egun garatutako zeregin askoren etorkizuna.

Egoera honek ordea, baditu bere argi-ilunak ere. Zerbitzu publikoen zabalpen eta ezarpen bat eman izanak badu bere garrantzia. Baina hiritartasuneko egoera eta talde desberdinen beharrak asetzetik urruti dago, oraindik ere. Osasungintza alorrean, zehazki, italiar datu batzuetan honako hau ageri da: laguntza, atentzio eta zainketa behar duen populazio guztiaren beharrak ordutan neurtu, eta zerbitzu publikoak, orohar, behar horiei erantzuten diharduten ordu kopuruarekin parekatuz gero, azken honek beharren %5a bakarrik asetzen duela ageri da.¹³

Gauza zera litzateke, Estatuak legitimazio arazo bat gainditu duela batez ere. Hiritarren beharrak eta eskubideak hark bermatzen ditu eta dirutzak darabilzkie horretan. Artean,

11 GIDDENS, Anthony (2002) “Manual de sociología” Alianzak argit.

12 ESCOHOTADO, Antonio (1995) “ De Physis a Polis” Anagramak argitaratua

¹³PICCHIO, Antonella (1994):“El trabajo de reproducción, tema central en el análisis del mercado laboral” en *Las mujeres y el trabajo.Rupturas conceptuales*, coord. por Borderías, Carrasco y Alemany, Ed. Icaria.

tradizioz eta isilean egindako lanak, zeregin eta lan ikusezinez osaturiko etxekolan horrek, hor jarraitzen du, errekonozimendurik gabe, legitimaziorik gabe eta erakunde publikoak ozenki eta orokorki tratatzen dioten beharrei, erantzun isil, banan-banako, oinarritzko eta egunerokoa ematen.

Estatuari gero eta larriago gertatzen zaio etengabe konplexuago den sistema sozialaren eta bere partaideen beharrei erantzutea. Ohizko arazoak berriekin elkarlotuaz doaz. Ekinbide pribatua eta publikoa ez dira nahiko gertatu eta garatutako estatuetan "hirugarren eragilea" izeneko lan mota batari da garrantzi hartzen: lan boluntarioa. Auzolana eta elkartasuna oinarri duten lanak betidanik ezagutu dira gizarteetan, baina orain modu erakundetze eta antolaketa maila bereiziaz ematen ari diren hainbat ekintza mota biltzen ditu "boluntario" terminoak.

Dituen aztergai puntuen artean, lan mota honek, interes ekonomiko edo merkatarietatik urrun dauden hainbat zeregin eta ekintza agertzen dituen neurrian etxeko-lanen definizioan sakontzen lagun dakiguke.

Etxekoandreak famili erakunde barnean burutzen dituen lan eta zerbitzuen artean haurren hazkuntza izan ohi da iritzi eta azterketa gehien jaso dituen. Seme-alabak bere ardura ditu etxekoandreak, bere propietate. Jabetza hau, ordea, beste jabetza batzuekin alderatzean, diruarekin adibidez, beste adierazgarri batzuk dituela agertzen da.¹⁴Diruak trukaketa, metaketa, bukaera-eza, mugarik eza, espezifikotasun eza, borondaterik eza suposatzen du. Seme-alaben kontrakoa. Emakumezkoak, hazkuntzaz arduratzean bereganatzen duen jabetza edo botereak ez du diruak ematen duen elementuetatik bat bera ere ematen.

Botere edo propietate hau belaunaldi desberdinen arteko emakumeen artean banaturik aurkitzen da gizarteetan. Hazkuntza monopolizatua edukitzeak, C.Amorosen hitzetan¹⁵, zainketaren etika emakumeak barneratu eta bereganaturik izatea dakar. Gizartearen antolaketan egituraturik dagoen lanaren zatiketa sexuala eraldatu ahal izateko emakumezkoak ,etxekoandreak zehazki, monopolio hori galdu beharko du. Zainketaren etikaren orokortzea justiziaren zabalkuntza posibilitate sinboliko bezala.

Beste aldetik, pobrezia inguruan burutu den ikerketa multzoak famili beharren gaiaz informazio baliagarriak dakarzkigula aipatu behar dugu. Ikuspegi honek, zuzenean etxekoandrea helburu ez badu ere, bere egoeretz mintzo da gehienetan, emakumezkoak bai dira pobrezia egoera gehien eta gogorrenen protagonistak.

Pobrezia abiapuntu hartuz, emakumezkoen kategoriak egitea posible da. Langile pobre edo maila baxukoaren artean bada bat etxekoandreekin espazio pribatu edo etxetierra konpartitzen duena: neskameen taldea.

¹⁴CORIA, Clara (1987):" *El sexo oculto del dinero*" Ed. Argot.

¹⁵AMOROS, Celia (1992):" *Hongos hobbesianos, setas venenosas*" en Rev. Mientras tanto, N1 48.

ETXEKO-FAMILIKO NESKAMEAK.

Taldea definitze orduan arazo teorikoak sortzen dira, lan arlo irristakorra bai da. Emakumezkoen lanbideei buruzko idatzietan apenas aipatzen da langile hauek. 80g. hamarkadatik hona, hasi da ikerketa eta lanen bat argitaratzen¹⁶. Etxeko enplegatuak dituzten lan baldintzen ezaguera eskasa dugu, bestetik. Etxeko enplegatu edo neskame diharduen emakumezkoen adin ertaina 33 urtekoa da. Hezkuntza maila behekoa du populazioaren erditik gora. Asistentea edo laguntzaile dira % 45 inguru, eta neskameetatik erdia etxean bertan bizi da, neskameak dira beraz. Hartu-emanak lanbide bereko emakumezkoekin izan ohi dituzte gehien bat. Nekazal mundutik edo beste erkideetakoak izaten dira portzentaje handi batean.

Erdia edo oso gazte hasten da lan honetan, 19 urte bete aurretik. 4tik hiru ezagun edo laguntasunezko hartu-emanen bidez lortu du lan hau. Erakundeen partaidetza, dagoenean, erlijiosoak, agenzi pribatuak eta neskame kooperatibetara mugatzen da.

Egonkortasun maila altua da lan honetan. % 60ak urte batetik gora darama lanpostuan. Lanez aldatzeko asmoa % 20ak baina ez du agertzen. Dauden famili edo bizi-kidegoak mota askotakoak badira ere, azpimarragarria da ia erdiak (% 45a) soldata hau duela bere etxebizitzaren irabazi bakarra.

Laneko etxebizitzari dagokionean, 1990ean egindako zundaldi batek honako banaketa agertzen zuen: % 11 etxeetan emakume printzipala erretiratu zegoen, % 46 etxeetakoak etxeetakoandrea zen, eta gainerakoetan enplegaturik edo etxetik kanpo lanean zegoen emakume kontratatzailea.

Lanbide hau arautzeko eskaerak 1974 urtean ezagutu ziren lehenengo aldiz, baina 1985 urteraino ez zen legedi minimo bat onartu, eragozpen eta akatsez betetako arautegi bat bestetik.

Gaur eguneko egoeraren alderdi aipagarri batzuek azaldu nahi genituzke, azkenik. Hamarkada hauek, Herri administrazioak, hiritarren beharrei erantzuteko hainbat lanpostu sortu du. Etxebizitzetan burutzen diren zerbitzuak dira hauek (SAD, gizarte-langileen zenbait ekintza, e.a.) Baina bai jatorri aldetik, bai lan-baldintza eta baita sinbolikoki ere, ezin daitezke neskame egoerarekin parekatu. 70 hamarkadetan neskameen elkarrekin sortu eta garatu ziren. Ezkertiar mugimendu edo elizbarrutietan bultzatutako taldeak ziren. Alderdi eraginkor eta erabilkorrez gain, partaideen idearioak lan honen desagertzea aldarrikatzen zuen, epe ertain batean. Menpeko harremanetan oinarritzen den lanbidea da, zerbitzariak dira, ez langileak. Gizartearen aldakuntzaren bidez, aurrerapen teknikoak eta norbanakoaren arduratzea dela medio, lanbide honek zentzu soziala galduko zuen, luxuzko

16 SALLE, M.A. (1985): "Situación de las Empleadas de Hogar en España" Tesis Doctoral. UGT. DPTO. CONFEDERAL DE LA MUJER (1990): "Conclusiones de las III jornadas de la Mujer. La legislación de las Empleadas de Hogar". I.O.E. (1990): "El servicio doméstico en España: entre el trabajo invisible y la economía sumergida" Ed. por el Instituto de la Juventud y el Instituto de la Mujer. FERRER LOPEZ, MA (1991): "Guía laboral para empleadas de hogar y sus empleadores".

logika bakarrik mantenduz. Iraingarri eta umilaziozko egoeratan garatzen den lan honek desagertzea besterik ez du merezi.

Gaur egun elkarrekin aholkularitza lan bat bakarrik daramate, eta bere errebindikazioa emakumezko beste talde batzuen proposamenekin kontrajarrita aurkitzen dugu. Etxean enplegaturikoen artean bada bere burua profesionaltzat duenik, zereginak eta baldintzak enpresari ikuspegi aztertuz.

EGUNEROKO BIZITZAREN SOZIOLOGIAZ

Azken hamarkadetan rolen inguruan sortutako hainbat teoria balio eskasekoak agertzen ziren soziologoentzat. Arazo hauei beste eragin batzuk eranstean gain, gauza da, eguneroko bizitzaren soziologia arlo emankor eta ezagunenetariko batean bihurtu dela gizarte konplexuen azterketa gauzatu al izateko eta baita bere garapenak aberasgarri suertatu direlako.

Ezberdintasun sozial eta sexuala agertzeko orduan adibidez, aipaturiko aurreko soziologiek, gizonen eta emakumezkoen ohizko rol motak hartzen zituzten abiapuntutzat. Oraingo honetan, ordea, eguneroko bizitzaren azterketek denbora eta espazio egitura diferente asko aurrekusi beharra jarriko du agerian, pertsona (bai emakumezko, bai gizonen) bakoitzaren esperientzia eta giza-nortasuna egitura hauen inguruan osatuko litzatekeen zerbaitean bilakatuz.

Horrela, denboraren erabilpena eta kudeaketaren gainean burutu den hainbat azterketek genero harremanek gizartean duten egoera asimetrikoa agertzeko balio izan dute. Bizi baldintza desberdinen adierazpena, desberdinperiozialaren erakusle izateaz gain, egunaren orduen erabilpen arazo bat dela islatzen dute, erabilpen honek ekinbide batzuetan partaidetza eta parte har ezina agertzen bai du. Etxeko lanen kasuan, hiru denbora mota diferente bereiz genitzake, hiru logika eta hiru irudikari desberdinekin loturikoak hain zuzen: lanaren denbora lehenengo, ekintza instrumental eta lan profesionala barnean dituen, eta bestetik ekintza espresiboen taldea, non oinarritzko beharren denbora eta aisialdiaren denbora izango genituzkeena. Hiru denbora hauek genero biko adin talde bereko bi multzoetan aztertuz gero funtsezko ezberdintasunak ez genituzke etxeko lanen denboran baino antzemango. Ikerlari hauen lanari espazioen erabilpen desberdinei buruzko azterketak erantsi zaizkie, eta guzti honek, besteak beste, emakumezkoen azteketarako zientzia-bide berriak ireki dituela esan genezake, espazio eta denbora baldintza-possibilitate izango dituen zientzia bat.

LANGABEZIA ETA AZPI-EKONOMIA

Aipatutakoa baino zatarragoa da emakumezkoen desenplegu tasen mantentze edo igotzea, non hemen agertzen den noraino dagoen indarrean eta ondo egituratua generoa bete-

betean ukitzen duen zurrunkeri laborala. Zenbait taldeen egoerari dagokionean baztertzeko hitza motz gelditzen zaigu eta eskusio edo kanporaketaz mintzatu behar gara . 17

Azpi-ekonomia dago bestetik. Mundu aparte bat bailitzan aztertu ohi da, batzutan. Eta gehien batean emakumezkoak lanean dituzten azpi-ekonomiak kontutan hartu behar dira, beraien berezitasuna. Geure ustez, azpi-ekonomiaren esparrua langabezi eta enplegatu egoeren artean continuum bat eraikitzen lagun dakiguke. Bertan, "lanpostua" eta "ekinlana" ideia elkar harremanean jarriz, nahasirik agertzen zaizkigu.

Emakume gazteen egoera adierazgarria da, zentzu honetan. Langabetu taldeetaz hitz egitean gizonezkoena beti agertu ohi da larriago, bai sozialki, bai politikoki ere. Etxekolanetan jardutea "naturala" izatean emakume hainbat talde, ez dago aktibitatearik gabe, badu zereginik. Horrela ba, zerbitzu pertsonal bezala kontsidera genitzakeen lan asko hogeitaz urte edo gutxiago duten gaztetxo emakumezkoak egin ohi dituzte. Lanpostu eskasiaren aurrean emakumezkoak "lantxoak" aurkitzeko erraztasun handiagoa izango luteke.

Azpi-ekonomiaren barnean mota askotariko langintzak daude. Baina bere funtzionamenduaz, zabaldu eta hazten den moduz bi azpimarra genitzake: aspaldidanik, familiatan, taldeetan egin direnak eta ekonomia formaltearekin azpi-ekonomia izendapena jaso duten aktibitateak izango genituzke, batetik. Bestetik, ekonomia jasaten duen egoera dela eta ofizialtasun maila galdu eta baldintza normalduetatik kanpo burutzen diren lanak genituzke. Hainbat faktoreek eragina, ekonomia hau gero eta zabalduago dagoela geure gizarte aurreratuetoako famili eta taldeetan.

Egoeraren beste bi adierazle lan merkatuen segmentazioa eta ez ohiko enplegu motak dira. Ikus ditzagun.

LAN-MERKATUTIK, LAN-MERKATUETARA

Lanaren soziologian ezaguna egin zen teori honek zera dio: lan-merkatu bat beharrean, aunitz ditugu. Edo, bestela esanda, segmentu desberdinetan banatutako lan merkatua genuke. Lan merkatu segmentu desberdinak ez dute elkarren arteko enfrontamendurik, ez lehiaketarik.

Lanpostu bakoitza faktore ekonomiko, tekniko eta instituzionalez eragina dago. Langile konkretu baten egoera zehazteko bere lanpostuko elementu hauek ulertu beharrean gaude. Eta, horretaz gain, langile horren giza-ingurunea (familia, hartu-emanak, e.a.) eta bertan dabiltzan erreproduzio eta produkzio prozesuen joko ere kontutan hartu behar dugu.. 18

¹⁷SALLE,M.A. y CASAS,J.I. (1986):"Efectos de la crisis económica sobre el trabajo de las mujeres" Ed. por Instituto de la Mujer. SANCHIS, Enriq (1984) "El trabajo a domicilio en el PAÍS Valenciá", en Ed. Instituto de la Mujer.

¹⁸. VILA, Paola (1991):"Los mercados de trabajo segmentados". M1 de Trabajo y S.social.

Ikuspegi honetan, beraz, lan merkatua gertaera konplexu batean bilakatzen da, bere egituraketan harreman diferenteak ditugularik. Gizartearen antolaketa sistema osoa litzateke lan merkatuaren testuingurua. Hainbat elementuen garrantzia azpimarratzen ditu, baina, dena dela, ikuspegi honek familia eta enpresa terminoei lehentasunezko tratamendua ematen diela aitortu behar da. Baina, beste egitura batzuekin harremanduz:

“Enpresa eta familia, antolatze bi modu bereizi dira, ohizkoak, tradiziozkoak. Eraikuntza lan-arloa aztertzean, adibidez, bi hauek gain beste antolaketa batzuek agertzen zaizkigu. Etorrinen komunitatea da eta ez familia isolatua eskulanaren berrekoizpena ziurtatzen duen unitate soziala. Enpresa bakoitza ere ezin dugu produkzio unitate autonomo bat balitz ikusi. Enpresak elkarren artean azpi-kontratuen bidez lotuta daude, enpresa baina eraikin-lan bera litzateke produkzio unitate zentzu oso duena”

Giza antolaketa eta lan-indarraren bir-produkzio sistema, bestetik, langileri taldean dagoen aniztasunarekin harremanean jartzen da. Alegia, langile segmentuak ulertu eta aztertze, goian aipaturiko posiziozko elementuez gain, kualifikazio sistema eta baldintza fisikoak hartzen ditu kontuan ikuspegi honek.

Bestetik, bikote tradizional batek, elkar-dependentsian dagoen egoera bat irudikatu badezake ere, famili harremanek posizio eta mailaketa suposatzen dutela adierazten du. Etxekoandreak ,etxeko-lanen bidez zenbait gai eta zerbitzu burutzen du. Lan merkatutik soldata gizonetzkoari ematen zaio. Elkartrukatze horretan berdintasun eza dago. Gizonezkoa, lanpostu eskaintzaren aurrean, posizio hobean dago, eta erakunde desberdinen eraginez posizio hori indartu eta irmotu baina ez da egiten.

Azkenik, lan merkatu segmentatuen ikuspegi honek dituen bi ideiak adierazi nahi dira. Ideia hau batetik: ekintza laboral bat agertzeko bere garapen sozio-historiakoa ulertzen ahalegin behar dugu, bai eta merkatuan duen “posizioa” egituratzen duten esparru eta erlazioak agertu ere.

Bestetik, segmentu bakoitzak, negoziazio botere diferentea du. Emakumezko eta gizonetzkoen kasuan, negoziazio posizio hauek argi eta garbi ageri dira. Posizio hauek, dena dela, dinamikoak dira, ez estatikoak.

DENBORA ERTAINEKO LANA ETA BAZTERKETA LABORALA.

